

# Arrasate

P R E S S


1986ko  
Otsailak 28  
309. zenb.

**KULTURA**  
Miren Arregi

**IRITZIA**  
Esther  
Apaolaza

**ELKARRIZKETA**  
Bittor Aierdi

**Depresioa**  
**Triste ala**  
**gaixo nago?**





# Gaur bizitza zuk gidatzen duzu.



**Mégane Coupé**



**Mégane**

Joan den asteko MECA

Zuen fotolitoa montatu mesedez  
Edurenek apartatuta du.



## **S**egurtasuna: Gizakian pentsatuz lan eginez.

Angulo-hil gabe eta balazten hirugarren argi batez, hobeto ikusia izan eta ikusteko. Ordenagailuz zuzendutako ABS sistema, gurpilak ez blokeatzeko. Arranke-aurkako sistema elektronikoa eta sartze-aurkako alarma. Istripu baten aurrean 110 milisegundurako protekzio sistema guztiak aktibatzen gaitasuna: programatutako uztarri sistema (Renault-en eskusiba mundiala), airbag, euskarri eta monopropultsoaren blokeoa, aurreko ezker aldeko gurpila gorputzadarrean oinarritzea, mandumahiaren deformazioa eta azkenik ahalegin mugatzailearen ekintza.

## **D**iseinua: Zure irudimena pizteko gai den linea.

Elipsea da bere perfekzioaren sekretua. Kurbaz osatua: lunetaren linea ozarra, atzeko pilotuen bukaera ur ttantta bat lurruntzerakoan bezala. Haizea hobeto laztantzeko.

## **T**eknologia: Ekologiaren errespetua eta ekonomiarentzat mesede.

16 i 90 zaldidun motore berriak, belaunaldi superdotatua. Gasolinazko 3 bertsioek eta diezelezkoak eskakizun guztiak betetzen dituzte. 60 litroko gasolina depositoak autonomia eskaintzen du. Ingurugiroan murgilduz zarataren emisioarentzat dauden arauak (74 dB) betez eta errez birzikla daitezkeen materialak erabiliz.



# MECA



# Inbertsioa eta Euskal Herriaren irudia

**A**siako herrialde urrunetara bidaian joaterakoan, igartzen da -eraikuntza- rako grina satanikoaren artetik begiratuta- herrialde hauen hazkunde balore harrigarriekiko igoera geraezina, teknologia eta kapitalaren xarma-erakargarritasuna.

Atzo komunista edo diktadura gogorren erresuma ziren herrialdeak, -Vietnam, Malasia, Tailandia edo Singapur bezalakoak- gaur merkatuan sartutako herrialdeak dira, politikaren kateetatik libre.

Garai bateko etikaren aurkako merkatu hura, gaur egun eredu da. Diktadura ereduetatik sortutako emaitzak ikusita, merkatuak eskaintzen diena - garatze prozesuan sortzen den marginazioa garestia izan arren- liluragarriagoa eta erabilgarriagoa da, Barne Produktu Gordina (BPG) %10aren inguruan ibiltzea lortu dute eta. Hazkunde maila horri eten barik eusten bazaio, zortzi urtetan bikoiztu egingo dute BPG, eta herrialde garatuen gailurrean kokatuko dira.

Desberdintasunak mortalak izan arren, nabarmen jeisten ari dira, inguru politikoak jarri zien anti-irudiaren arazoa gainditu eta gero, edo extorsio eta bahiketetan espezialista diren ekintzena konpondu dutenean, Filipinak adibide, modernitatearekin bat egitea galera ahal diona.

Herrialde bezala itxura txarra, lehen aipatu diren arrazoiengatik, eta inbertsio faltaren artean harreman estua dago. Euskadiko egoeraz erreflexioa egiteko orduan, segituan datorkigu burura kanpoko inbertsioaren eza eta biolentziaren arteko lotura.

Gaur egun, eremu geografiko edo herrialde baten ongizatea eta gaizki izatea, neurri handi batean inbertsioekiko duen erakartasunaren menpe dago, gehiago lantegia finkoa baino ibiltaria denean, eta hau kostea + segurtasuna + errentagarritasuna

ekuazioa aurrera begira ondoen irteten den tokian kokatzen da; hau da, inbertsioa berreskuratzeko denboran.

Gure lanaren ondorioz, inbertsioetarako gaitasuna dagoen tokietan borrokatu eta adiskidetu behar dugunok, ondo dakigu zein zaila den Euskadi saltzea, nahiz eta demostratu ezin dena demostratzen bihotza jarri: bakea dagoela. Baina larriena ez da hitzekin sinestartzeko gaitasuna daukagun edo ez, baizik eta aurpegian jartzen dizkigutela telebistako irudiak eta "di-da" ezabaten dutela gure hitzeko estrategia osoa.

Hori da gure paradoja eta gure tragedia: aparteko inguru geopolitikoan kokatuta gaudela eta aparteko eskulana daukagula jakinda, mugarik gabeko giza-aberastasun horiek ongarrizko inbertsioa eta teknologia falta dugula.

Batzutan, esaten dutena gezurra dela dakiten Euskal Herriko pertsonaia famatuaren artikuluak irakurtzen ditugu: dena teknika eta ekonomia kontua dela. Ez da egia; segurtasunaren eta bakearen kontua da, proiektuaren errentagarritasun txikiagotan ere. Ez da ona gure politikariek azukrea botatzea benetako egoerari, eta guztioi egoera honen errua leporatu, benetan tiroa gorago bota behar denean, bake prozesua diseinatu eta aurrera eramateko gaitasuna izan behar duten eliteei.

Lasaitasun psikologiko eta giza-harreman ugariko giro batean lortu beharreko akordio egonkorretara iristea kostatzen ari zaiguna ikusita, badirudi kapitalik ez erakartzera kondenatu gaituztela, ezta denboraz teknologia, datorkigunari aurre egiteko: ondoen prestatutakoen emigrazioa eta gaizkien prestatutakoen marginazioa.

Biolentziaren tortilari buelta emateko gauza ez bagara, dramatikoki iluna da gure etorkizuna.

**JESUS LARRAÑAGA**

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

**Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11**

**Memesa  
79 42 22**



**ARRASATEKO UDALA**

*Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du*



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du*



*Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du*

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopl, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozate-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



**Azala:** Goio Arana

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.  
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



•••••

## **Inpresio bat**

**D**onostia Egia auzoko Gaztetxea bota dute. Bai, ikusi nuen nola bota zuten. Aktu sinbolikoa zirudien. Bertan Komunitate Autonomo honetako buru garrantzitsuenak zeudela imajinatu nuen. Ez dakit nire ondoran zeuden gazte eta ez hain gazteek pentsatu zutena, baina nik behintzat hori pentsatu nuen, hau da, aktu sinbolikoa izan zela iruditu zitzaidan. Olinpiadetan moduan. Ez dakit hau idaztearekin protesta bat egiten ari naizen edo bakarrik nire inpresioak jasoko ditudan. Egia esan badut honi buruz zer esan, ez naiz inpartziala honen aurrean, ez. Baina nire iritzitik aparte, ni gaztetxearen aldo edo kontra egotetik aparte, nire inpresioa jarri nahi nuke hemen. Beste berba batzuekin esanda, aurreko ostiralean ikusi nuena zirkoa iruditu zitzaidan, botere politikoez edota konstruktoreek (destruktoreek, bertan bildutako gazteek zioten moduan) dute boterea erakutsi nahian edo, egindako espektakulua. Mitologian kontatzen duten bezala, Goian dauden Jaun (Andere?) horiei egindako sakrifizio antzerakoa iruditu zitzaidan. Ezin dut segurtasunez esan, zeren han eta hemen jendea berbetan entzuten nuen, eta euren gauzak, botatzen ari ziren etxe barruan zeudela entzutea iruditu zitzaidan. Benetan, aintzinako greziar kontu mitologikoa zirudien, dragoia eta guzti: eskabadora bat zen, obreroek zuzenduta. Obreroek eta gaztetxean bizi izandakoek gauza bat edo beste esan zioten batak besteari, nabaritu zitekeen zer, ondo entzuten ez bazen ere. Gaztetxeo gazteen eta obrero batzuen adina bera zen ziuraski, eta han zegoen bakoitza, bere

interesa defendatuz. Neska bati zera entzun nion: "hau ez dela horrela egiten!", eta ez dakit zergatik, arrazoia zuela iruditu zitzaidan.

**MARTA DEL CAMPO  
URIBARRENA**

•••••

## **Semaforo pare bat sobretan da?**

**M**axi-Eroskiko kurtzetik hasi eta Roneo zaharreko zubire zerbait ein bi litzake. Kantzate gauz hor inguruen eitten dien kolakin eta gertaketan dien istripu eta golpiekin.

Roneoko zubixen dauen baserri fueteko kristonak ein bi die.

Kalien (Arrasaten) gauzak eitten die, bai...; sekuleko rotondak kotxiek poliki fueteko, eta semaforo pilue.

Zergatik ez ipini holako zerbait hamen? Edo presupesto dana urbanizaziorako da?

**E. AGIRIANO**

•••••

## **Eusko Alkartasunak Arrasateko herriari**

**O**tsailaren 16an, arratsaldeko 7.30etan EAko afiliatu eta gogaide talde bat Karlos Garaikoetxea lehendakariarekin eta alderdiaren zuzendaritzako hainbat kideekin zihoan hauteskunde honetarako Gipuzkoako hautagaiaren hitzak entzutera. Monterrongo aretora zihola, presoan aldeko manifestaldi bateko partaideengatik iraindua, bultzatua, eta era-

sotua izan zen eta txistua ere bota zioten.

Gertakari hauei ezin zaie eraso eta probokazio besterik deitu.

Zeren bila dabilta probokatzaileak ekintza hauekin? Beraien helburu politikoarengana bateraketa nahi badute, guztiz alderantzizkoa lortzen dute: herritarrak beldurtzen dituzte eta beraiegangandik datorren edozein proposamenetik urruntzen gaituzte.

Nortzuk dute ekintza guzti hauen erantzukizuna? Egun horretan parte hartu zuten manifestaldi probokatzaileek. Horietako batzuk etorri izan dira gugana, EAra presoengana elkartasuna eskatzen. Gure laguntza hitzez eta idatziz eskaini diegu, eta hau da jaso dugun erantzun bakarra. Honez gero ezagutu ditugu.

Baina, horrenbesteko erantzukizuna edo gehiago dute, aurpegia eman gabe, atzetik, beldurtze ekintza eta kanpaina hauek zuzentzen dituztenek. Hauek dira jende aurrean agurrak eta txantxak erakusten dituztenak eta bitartean, ixilean, probokazio guztiak antolatzen dituztenak. Hauek ere ezagutzen ditugu.

Gainera, badago oso argi utzi behar den beste erantzule bat: Alkatea. Ekintza hauengatik galdetu zitzaionean, ezer ez zekiela erantzun zuen. Gure alkatea gorra da, edo ez da ohartzen, edota ez dabil onda berdinean.

Gu prest gaude herriaren alde lan egiten duen edozein alkateri laguntzeko, Arrasate eta arrasatearren arteko elkarbizitza hobetzeko, aurreko legealditan frogatu izan dugun bezala. Hau da, guztion alkatea izan dadila.

Baina, alkate hau ez bada ohartzen, edota ez badu arazo hauetaz ohartzerik nahi, ezin du, edo ez du nahi, edota ez diote uzten guztion alka-

tea izaten. Eta jadanik, eman izan dira herrian salatzen dugun moduko beste gertakari batzuk.

Bukatzeko, azken bolada honetan, herrian gertatzen ari dena ikusirik, Arrasateko EAk badu zeresanik:

- Iritzi eta ideologia guztiak dira errespetagarriak eta errespetatu beharrekoak.

- Tentsioa eta herritarren arteko borroka giroa sortzen ari da, euren helburu politikoak lortzea soilik nahi duten pertsona eta erakundeek bultzatuta.

- Tentsio eta elkar borroka hau, ez badugu lehenbailen eragozten oso denbora motzean arazo larri bihurtuko da.

- EAk egoera honetara heldu ez gaitezen ahalegin guztiak egingo ditu eta honegatik erasoei ez die erantzungo. Ekintza guzti hauek salatzen jarraituko du eta bere ideiei tinko eutsiz arrasatearren arteko errespetua eta tolerantzia bultzatuko du, eta baieztatzen dugun hau ez dezala inork ahultasun modura interpretatu, gure ideien dugun sinismen sendoa-ren modura baino.


**EUSKO ALKARTASUNEN  
ARRASATEKO BATZORDEA**

## **Oharra**

Zure iritzia gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzitzen edo inizilez argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.



# Elurrarekin gustora?



**Joxe Zulueta**  
**Jubilatua**  
**(74 urte)**

Gustora ez, eguraldi onak komeni zaizkit eta. Hobeto ibiltzen naiz eguraldi eguzkitsuarekin.



**Marian Uribe**  
**Langabezian**  
**(31 urte)**

Alde batetik bai, baina lana egiteko elurra ez da atsegina. Etxean geratu edo mendira joateko elurra ondo dago, baina bestela...



**Esteban Otaduy**  
**Langilea**  
**(38 urte)**

Elurrarekin beti ibiltzen naiz gustora, baina Udalatik gora egiten badu. Elurra zapaldu nahi duenak mendira joan dadila!



**Maite Diez**  
**Ikaslea**  
**(16 urte)**

Bai, asko gustatzen zait eta. Hala ere ez naiz elurretara jolastera joan.



**Jaime Gonzalez**  
**Langilea**  
**(38 urte)**

Bai gustora. Ilusio handia egin dit elurra egiteak. Kamioiarekin lanean ibili naiz baina kateak ipini eta aurre-ra!



**Ane Miren Agirre**  
**Ikaslea**  
**(16 urte)**

Ez zait elurra gustatzen. Elur larregi egiten du, errepi-deak eta kaleak erabat kakaz-tuta daude.



**Jabi Aranegi**  
**Langilea**  
**(29 urte)**

Bai baina etxean egoteko, lana egiteko ez da oso erosoa. Ea zapaturako geratzen den, arrebak ezkontzen da Arantzazun eta.



**Mari Martin**  
**Etxekoandrea**  
**(39 urte)**

Bai, oso gustora. Ni Avilakoa naiz eta han ere elur asko egiten duenez asko gustatzen zait.

## Mahai-ingurua FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEAN HAURRA

Partaideak: **Resu Abasolo**  
**Rufina Olasagasti**

Moderatzailea: **Nerea Alzola**

**Otsailak 29, arratsaldeko 7etan, Monterronen.**

Laguntzaileak: Udala, Foru Aldundia, Emakunde

Antolatzailea:





**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Iguualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

**Gurutze Gorria**

Bergara	76 55 76
---------	----------

**DYA**

Antzuola	76 62 91
----------	----------

**Anbulatorioak**

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

**Anbulantziak**

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------	----------

**Udaltzaingoa**

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

**Ertzaintza**

Arrasate	79 71 99
----------	----------

**Suhiltzaileak**

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

**Matxurak**

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**Garraioak**

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**

KIUB-OMIC	79 51 55
-----------	----------

**Monterrongo liburutegia**

Monterron	77 01 05
-----------	----------

**23 OSTIRALA**

• ZINEA

"Asesinos" 7etan eta 10etan.

**24 LARUNBATA**

• ZINEA

"La red" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN

Orain antzerki taldeak "Besarka gaitzen Folleville" antzezlanana antzetzuko du Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta.

• INTSUMISO EGUNA ESKORIATZAN

Eguerdiko 12etan Herri poteoa trikitilariekin. 2etan herri bazkaria frontoian. Bazkalostean bertsolariak, antzerkia, txiste kontalariak eta herri jokoak. Arratsaldeko 7etan poteoa eta gaueko 10etan Rock jaialdia Kontraste, Iskanbila eta Latze taldeekin

**25 IGANDEA**

• ZINEA

"La red" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• MENDI IRTEERA BESAIDE-REKIN

Azpeitia, Izarraitz, Azkarate eta Elosura joango dira. Irteera goizeko 7etan Garibaitik.



**ORAIN ANTZERKI TALDEA**

Besarka gaitzen Folleville antzezlanana antzetzuko du Orain taldeak larunbatean Amaia Antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta. Antzezlanaren protagonistak Iñake Irastorza, Niko Iizeaga, Zorion Egileor, Asier Hormaza, Fernango Mikelajauregi eta Jokin Conde dira. Zuzendaria berriz, Enrike Diaz de Rada.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 23**

Egunez eta gauez: Ruz. Maala.

**Larunbata 24**

Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

**Igandea 25**

Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerias.

**Astelehena 26**

Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

**Asteartea 27**

Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

**Asteazkena 28**

Egunez eta gauez: Irizar. Erquin.

**Osteguna 29**

Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.



**26 ASTELEHENA**

• ZINEA

"La red" 7etan eta 9.30etan.

**27 ASTEARTEA**

• ZINEA

"La red" 7etan eta 9.30etan.

**29 OSTEGUNA**

• S. F. XABIER IKASTOLAN HIZALDIA

Gaia: "Formazioa eta enplegua".  
Gazteluondoko ikastolan arratsaldeko 6etan. OHoko 7., 8. eta REMeko ikasleen gurasoei zuzenduta.

• EKINEN MAHAINGURUA

Gaia: "Familia eta eskolaren artean haurra". Partaideak: Resu Abasolo eta Rufina Olasagasti. Moderatzailea: Nerea Alzola. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Ekin emakume taldeak antolatuta.

**ANTZERKI TAILERRA**

**Otsailaren 24an antzerki tailerra jarriko du abian AEDK. Arraduna Jose Martin Urrutia antzezlea izango da. Landuko duten antzezlanak "Nueva Zaragozako herritarrak". Hamasei urte baino gehiago duen edozeinek har dezake parte. Matrikula: 5.000 pta, AEDKo bazkideentzat 4.500 pta. eta 2.000 ikasle eta langabetuentzat. Interesatuok lehenbailehen pasa AEDtik edo deitu 77 12 28 zenbakira**

**JUBILATU ETXEETAKO CHARRA**

Martxoaren 30ra arte Toki Argi, Musakola, Abaroa eta Uribarri jubilatuko bazkideak euren elkartetik pasatu behar dira karretaren zigilu berria jartzeko. Epe horretan pasatu ez, eta zigilua jartzen ez duen bazkideak, ez du jubilatuko etxearen zerbitzuak erabiltzeko aukerarik izango.

**ELIZBARRUTIKO MANKOMUNITATEAREN OHARRA**

*Arrasateko elizbarrutiko mankomunitateak garizumako ostegun guztietan otoitza egingo du arratsaldeko 8etan San Juan Bataiatzailearen Parrokiaren. Lehen otoitza otsailaren 29, ostegunean egingo da*



**EUSKAL DANTZEN IKASTAROA**

**Martxoaren 16an hasiko da ostiralero arratsaldeko 7etatik 8.30ak arte. 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Izenematea 1.000 pta. Plaza mugatuak. Izenematea Gazte Bulegoan (77 00 65).**

**TXOMIN ITURBERI OMENALDIA**

Martxoaren 1ean Txomin Iturberi omenaldia Amaia antzokian gaueko 10.30etan hasita. Arrasateko trikitilariak, bertsolariak: Unai Iturriaga, Iratxe Ibarra, Jon Maia, Aritz Lopetegui eta J.M. Irazu, abeslariak: Jojo Bordagarai eta Ramontxu Karrere izango dira. Aurkezlea: Xabier Zubizarreta. Hizlaria: Jon Idigoras.



“Komunikabideetan bestelako iritzirik azaldu bada ere, geuretzat ezinezkoa litzateke A-2 kategoria berri horri aurre egitea, ekonomi aldetik baliabiderik ez dugulako eta Arrasate hiriak exijitzen diren baldintzen arabera gabeziak dituelako. (...) Gauzak gehiegi pentsatu gabe egin dira eta zergatik ez litzateke A-2 asmatu beharrean, EBA indartzea egokiago? Orain bezala atzeritar bakarren orde birezat lekua balego ikuskizunak asko irabaziko luke eta 23 urtez azpiko jokalariei protagonismo handiagoa emanez gero, arrazoiz eta pisuz maila erakargarria osatuko litzateke”.

**Jon Ander Juldain**, 1996ko otsailak 18.

## ARGIA

“Orain arte euskara gai gisa hartu duten programen kutsu didaktikoa izan dute, baina guk kutsu informatiboa eman nahi genion sariari. Gizartea aldatzen ari da, eta aldakuntza horien berri eman nahi dugu.

(...) Euskara zabaltzen ari da, eta ondorioz gero eta jende gehiago ukitzen du. Ikusten dugu jende erdaldunak hainbat gairi buruzko informazio jaso behar duela, gero erabakiak hartu ahal izateko: ikastetxean seme-alabak zein eredutan sartuko dituzten pentsatu behar dute, Administrazioan badaude hizkuntz eskakizunak egiaztatu behar dituzte, eta abar

(...) Badakigu gai hau ez dela masiboa, ez da futbol partidu bat; eta gainera emisio eguna eta ordua ez dira aproposenak, baina hori guztia kontuan hartuta, ikusleen erantzuna oso pozgarria izan da guretzat”.

**Joxe Aranzabal**, 1996ko otsailak 13.

## Egunkaria

## Zertarako emakumeei zuzendutako ikastaroa?

**A**rrasateko Udal Emakume Sailak, emakumearendako prestakuntza eta lanbide ikastaroa antolatu du. Ikastaroa emakume guztiei zuzenduta dago, baina batez ere etxeko lanak egiten edo umeak eta pertsona nagusiak zaintzen dihardutenei.

Helburua formazioari eta lan merkatuari buruzko informazioa ematea da. Beraz, alde batetik geriatría eta umezaintzari buruzko oinarrizko ezagutzak irakatsiko diegu, eta ezagutza

horiek sakondu nahi badituzte gai horien inguruko ikasketak non egin gomendatu. Bestetik, merkatua zelan dagoen, kurikulum-ak zelan egin behar dituzten eta lana non aurki dezaketen jakinaraziko diegu. Horrez gain, euren eskubideak zeintzuk diren azalduko diegu, batez ere etxeetan lan egiten dutenei ez dakite zein eskubide duten eta. Esan bezala formazioa eta informazioa ematea izango dira helburuak, baina emakume horiek motibatzea ere lortu nahi dugu.

Hamasei emakume eta astean zortzi orduz ari dira ikastaroan parte hartzen. Orain dela gutxi hasi zen ikastaroa eta maiatza erdialdean bukatuko da. Guztira bost teknikok emango ditugu eskolak: medikuak, psikologoak, umezaintzan adituak, elikadura aditua den beste batek eta azkenik nik neuk, lan merkatuaren inguruko berri emango dut besteak beste.



**Nekane Plazaola**  
Ikastaroaren koordinatzailea




## AKELARRE Gozotegia

**ORAIN AKELARREN  
GOZARIAK GOIZEKO  
7.30etatik AURRERA!**

Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

**Gure betiko  
ohiturei  
tinko eutsiz**



Karapaixoak



Txokolatzeko  
Pazko  
arraultzak



**Jende gutxi play back-ean**

Zazpigarren play back jaialdiak ez zuen aurreko urteetan adina jendetzarik erakarri. Arratsaldeko emanaldian 100 lagun inguru izan ziren, eta gauean gehiago joan baziren ere antzokia ez zen guztiz bete. Aktuazioen kalitate maila ere desberdina izan zen.


**Lapurreta ugari**

Joan den asteburuan lapurreta ugari gertatu zen Arrasaten.

Ostiral gauean Zaldispe auzoko Balzola enpresatik eraikuntzan erabiltzen den materialean eraman zuten. Egun berean Aretxabaletako aroztegi batean 200.000 pta. ostu zituzten. Zapatuan, berriz, Eskola Politeknikoan inpresora bat eta fax bat lapurtu zuten, eta Loramendi kalean aparkatuta zegoen kamioi batetik irratia, emisorea eta antena eraman zuten. Bestalde, zapatu goizaldean Garibain dagoen Baskonia banketxe-ko kutxazaina apurtzen ahalegindu ziren, baina segituan alarmak jo zuen.

Zapatu gauean, San Josepen dagoen karrozerian lapurrak sartu ziren, baina ez dago ziur zer eraman zuten.

Asteartean, azkenik, Kontzeziñoko ileapaindegi batean lapurreta egiten saiatu ziren, atea bota ondoren.



**Arrasateko keramika taldeak lokal berria inauguratu**

Asteazkenean inauguratu zuen Arrasateko keramika taldeak lokal berria. Taldeko partaideak pozik dautte egoitza berriarekin, labe elektriko berria ere erosi dute eta.

Lokala gertu izan arte, taldeko 30 bazkideak urtebetean egon dira txoko barik. Orain, burubelarrari keramikak egiten hasteko asmoa dute baina bazkide berriak lortzen ere ahaleginduko dira.

Lanbide Eskolan dagoen lokal berria inauguratze-ko, asteazkenean luntxa izan zen.

**EAK Arrasaten ekin kanpainari**

Arrasaten hasi zuten hauteskunde kanpaina EAKoek joan den ostiralean. Goizean inguruko herrietan botoa eskatzen ibili ziren Begoña Lasagabaster, Gipuzkoan EAKo zerrendaburua kongresurako, eta Iñaxio Oliveri idazkaria. Eguerdian Eskola Politeknikora joan ziren, bertako arduradunekin Mondragon Unibertsitatearen proiektuari buruz hitzegiteko. Oliveriren esanetan, proiektua aurreratuta dago eta laster argia ikusiko du. Arratsaldean, Karlos Garaikoetxearekin batera,

mitin politikoa egin zen Monterronen. Mitina hasi baino lehenago tentsioa izan zen, presoan Euskal Herri-raztea eskatuz hainbat lagun bildu zen eta Monterronen. Arrasateko EAKoen esaneta iraindu egin zituzten. Gainera, Karlos Garaikoetxea zango trabatu zuten eta ia lurrera jausi zen.

**Hilketa salatua**

Francisco Tomas y Valienteren hilketa salatze-ko, hainbat herritar herriko plazan bildu zen ostegun arratsaldean. Ohi moduan borobil bat osatuz burutu zuten kontzentrazio isila.

Ostiralean, bestalde, Batxilergoko Institutoko ikasleek eta San Viatorren hirugarren batxilergo eta UBI ikasten dutenek greba egin zuten arrazoi berberetatik.

**Pleno aretoa bete**

Jende asko hurbildu zen Elkarriko Bittor Aierdik joan den ostegunean, hilaren 15ean, eman zuten hitzaldira. Elkarrikoak hitzegin ondoren, pleno aretora hurbildutakoek galdera ugari egin zituzten.

**JAIOTZAK**

- Iker Bengoetxea De Tena. Otsailaren 3an.
- Tasio Pagaldai San Millan. 9an.
- Inesa Ugalde Igartua. 12an.
- Alazne Garcia Errasti. 11n.
- Sergio Serrano Garcia. 12an.

**EZKONTZAK**

- Jose Maria Ayucar Zudaide eta Ane Maria Agirre Elordi. Otsailaren 17an. Zibiletik.

**HILDAKOAK**


- Francisco Hernandez Sanchez. Otsailaren 12an. 74 urte.
- Concepción Pradera Salazar. 13an. 51 urte.
- Dominica Uribarren Elorza. 13an. 62 urte.
- Mari Nieves Arano Arriaga. 13an. 79 urte.
- Esteban Mondragón Azkoa-ga. 15ean. 88 urte.



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

Elektroinjekzio Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE





\* Esther Apaolaza

## Publizitatea, herriko kronikak: nola jasotzen ditugu?

**Z**ein hizkuntzatan hel-tzen zaizkigu publizitatea buzoira eta herriko albisteak idatzizko komunikabideetan?

Aurten ere, azken urteotan bezala, AEDk arlo hau aztertu eta neurtzeari ekin dio.

Aurreko batzutan itxaropentsu agertzeko arrazoiak ikusi izan baditugu ere, datuei begiratu besterik ez dago konturatzeko joera beharko lukeenaren alderantzizkoa dela: irabazi egin beharrean, apurka-apurka galduz goaz.

Ikus, bestela, neurketaren emaitza: 1992. urtean iragarki elebidunak %28,3 ziren, 1993. urtean %26,2, 1994ean %22,4 eta 1995ean %23,1.

Gure etxean jasotzen ditugun 10 iragarkietatik, 7 erdera hutsez izaten direla baieztatu daiteke.

Arloka, euskara gehien erabiltzen dutenak, besteak beste, hauek dira: administrazioa, alderdi politikoak, elkarte batzuk eta bankuak. Aldiz, euskara gutxien erabiltzen dutenak: elikadura, altzari eta automobil-den-

.....

*“Aurreko batzutan itxaropentsu agertzeko arrazoiak ikusi izan baditugu ere, datuei begiratu besterik ez dago konturatzeko joera beharko lukeenaren alderantzizkoa dela”*

dak, inmobiliariak, e.a.

Izan ere, euskara guztionan denez, denok daukagu zer esan eta zer egin, bereizkeria honekin bukatzeko. Iragarkia egin duen entitatearen bezero bagara, arduradunari gutxienez bietan bere publizitatea bidal dezan eskatuko diogu. Horrela, hizkuntz eskubideen aldetik ere euskarari tratamendu duina ematea lortuko dugu, erdarari ematen zaiona bestekoa behintzat, euskararen normalkuntzarako gutxieneko abiapuntua baita.

Halaber, AEDk, Arrasateko albisteei buruzko idatzizko komunikabideetako hizkuntz erabilerarekiko neurketa egin ondoren, aurreko urteetan bezala, Arrasate Press zoriondu egin behar du bere jarduera osoa euskaraz egin duelako.

Ezin gauza bera esan gainerako komunikabideek euskarari eskaintzen dioten tokia ikusita, batez ere El Diario Vasco eta El Correok, euskarari ematen dioten tratamendua sinbolikoa izatera ere ez baita heltzen. 1995. urtean El Correon Arrasateko albisteean ez zen inoiz euskara erabili eta El Diario Vascon erabilera %4,5koa izan zen.

Esan behar, halaber, Eginek baduela oraindik zer egunik (iazko erabilera %44,8). Bestalde, Deiak bide horretatik jarraitzea espero dugu (%73,8).

Oraindik herriko informaziorik ematen ez duenez, neurketa honetaik kanpo geratu da Egunkaria, baina egunero informazioa euskaraz jasotzeko aukera aparta da.

\* AEDko DINAMIZATZAILEA

### ZURI BELTZEKOEN JOKOAN

**Gary Kasparov-ek gorriak ikusi zituen fitxa zuri-beltzen xakean makinari irabazteko. Lehen bi egunetan egurra eman zion makinak Azerbaidjangoari, munduko txapeldunari. Une horretan apostu denak zirkuito elektronikoen alde, gizakiaren neuronen kalterako. Baina hortik aurrera, sekulakoak hartu zituen xakean egiteko bereziki pentsatutako errobotak. Itxura baten biltegian zeukana errepikatzea besterik ez zuen egiten; Kasparovek, berriz, irudimena jarri zuen jokoan. Ez dirudi ez, oso hurbil dagoela makinak gizakia menperatuko duen eguna. Gaitzerdi!**

**Neguari berari ere, beltza deitzen zaio, baina are eta neguago bihurtzen da bazterrak zuriz estaltzen dituenengan. Aste honetan bertan, esate batera. Errobotak Kasparovekin letxe jokatu ohi dugu gizakiok eguraldiarekin: lehortearen aurrean guardasolak eta errogatibak, zaparradei aurre egiteko gomazko botinak eta euritakoak, hotzaren aurka forro polarrak, elur malutentzat kateak gurpiletan... baina denak alferrik zaparrada uholde denean edo elur-malutak elurte badira. Makina makina da, gizakia gizaki, natura natura... zuria zuri den moduan eta beltza beltz den moduan. Eta bakoitzari, dena izaten utzi behar zaio.**

BEÑARDO KORTABARRIA





Argazkian ikusten denez kamioiendako batez ere errepideak egoera txarrean egon dira.

## Elurrak eguneroko bizimodu eta ohiturak aldatu ditu

Elurraren ondorioz inguruko errepideak egoera kaskarrean egon badira ere, arazo larriena mendateetan egon da. Gatzaga eta Kruzetako mendateak itxita egon dira. Elurra kentzeko kamioiari esker, berriz, Arlaban eta Kantzarrekoa itxita egon dira kamioiendako baina ez kateekin zihoazen autoendako. Horrez gain, Udalak elurra kentzeko dituen hiru kamioiak eta beste hiru eskabadora etengabe lanean ibili dira.

Errepideak arriskutsu egon badira ere, Arrasate inguruan ez da istripu larrik gertatu. Hori bai asko izan dira irrist egin eta kol-

peak jaso dituzten autoak edo ezin irtenda geratu direnak.

Elurraren eraginez, gainera, asteartean, asteazkenean eta ostegunean Fagor elektratresnako langileak ez ziren lanera joan eta hainbat ikastetxek ere jai egin zuen.

Herritarren laguntza eskatzeko, asteartean alkateak bandoa atera zuen. Bandoan, herritarrei etxebizitza aurretik elurra kentzea eskatzen zitzaien. Horretaz gain, kontsumitzaileen bulegoak beste ohar bat atera zuen, autoari elurra kentzen ez bazaio txapa hondatu egiten dela jakinarazteko.

### Elurraren ondorioz ekintzak bertan behera

Hainbat izan dira elurraren eraginez burutu barik geratu diren ekintzak. Asteartean, adibidez, Ezker Batuko hautagaiek mitina eman behar zuten Arrasaten baina ezin izan zuten etorri. Horrez gain, asterako antolatuta zeuden hitzaldiak ere burutu gabe geratu dira.

Egunotan lan handia egin behar izan dute udaltzain, ertzain eta brigadako langileek, herritarrek ospitalera eramanez eta bat baino gehiago larrialditik atera behar izan dute eta.

Elurrak norbaiti mesede egin badie, horiek zapa-ta dendariak eta umeak izan dira. Dendari batek esan bezala, elurretarako oinetakoak erraz saldu dituzte egunotan. Umeek, berriz, jolastoki berria izan dute: Euskadiko Kutzako zelaiak. Egun guztian zehar zelai maldatsuak umez beteta egon dira.



*Kalitate gorena leihoetan.*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

*Baster-alde*  
  
*Jatetxea*


**Denboraldiko platerak, giro onean**

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58





Inguruko monumentu erlijiosoa bisitatzeko aukera eman nahi zaie bisitariei.

## Turismoa erakartzen hasteko lehenengo ahaleginak

Deba Garaia ere turismoa jasotzen hasi dadin, Mankomunitateak bi eskaintza turistikoko antolatzea erabaki du. Eskaintza bat industrializazioa da, eta horren bidez Arrasate eta inguruko enpresak bisitatzeko aukera emango zaie bisitariei. Bestea, berriz, erlijiosoa izango da, eta monumentu erlijiosotara egingo diren bisitekin osatuta egongo da.

Eskaintza horiek komertzializatu eta garatzeko, Mankomunitateak lehiaketara aterako du eskaintza eta ondoren, proposamen onena egiten duenari adjudikatuko zaio.

Datorren asteazkenean, Mankomunitateak egingo duen hileroko juntak, lehiaketa zabaltzeko balioko du baina ez Mankomunitatearen lau urteetarako plangintza onartzeko. Urtarrilean plangintza onartu ezenez, otsailekoan onespina emango zitzaioela uste zen baina puntu hori ez da eztabaidagaien artean egongo. Aurreko bileran, plangintza irekia izatearen alde azaldu ziren batzuk, baina orainoz ez dago ziur zein bide jarraituko duen 96-99 legealdirako plangintzak.

Oraingoan Aretxabaletako Udaletxean burutuko da Junta.

## Ferrerias-ekoek erdia ordaindu behar

Ferrerias 8 eta 8 bis etxebizitzetako bizilagunek ez dute Udalari ordaindu beharreko tasa ordaindu beharrik izango. Argentariaren aurkako sabotai ekintzak etxebizitza horietako fatxada hondatuta utzi zituenez, konponketa horiengatik ordaindu beharrekoa obra tasa salbuestea erabaki du Udalak. Hala ere, ez diete barkatu etxebizitza bakoitzean izandako kalteak konpontzeagatik ordaindu beharreko tasa. Udalaren ustez, aseguruak ordaindu behar du tasa hori.

Obrak behartuta egin behar dituztenez, tasak ordaindu beharrik ez izatea eskatu zuten Ferrerias-ekoek. Azaroaren 3ko sabotai ekintzak ia 9 milioiko galarak utzi zituen Ferrerias-eko etxebizitzetan, baina kopuru horretan ez dira sartzen etxe bakoitzean izandako kalteak. Aseguruaren Partzuergoak bakoitzak zuen aseguruaren arabera lagundu die. Horrez gain, terrorismoaren biktimei ematen zaien laguntza bidez, Eusko Jaurlaritzak kalteen erdia ordaindu die.

## ARKOK KOMERTZIAL SAILERAKO LANPOSTU BAT BETE BEHAR DU

### BALDINTZAK:

Euskara ondo menperatzea.  
Harremanetarako erraztasuna izatea.  
Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

### BALORATUKO DA:

Publizitate, marketing edo enpresa mailan ikasketak izatea.  
Herri komunikabideen ezagupena.  
Komertzial bezala esperientzia izatea.  
Arrasate ezagutzea.  
Testu prozesatzaileak eta datu baseak menperatzea erabiltzaile moduan.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Kurrikulumak martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira ARKOko egoitzan.

Azoka kalea, 1 - 20500 ARRASATE - Tfnoa: 77 08 15 - Faxa: 77 09 40



# Gida

Arrasate  
Aretxabaleta  
Eskoriatza  
Leintz-Gatzaga

# 96

**ORAINDIK  
DENBORAZ  
ZAUDE!**

Zure telefonoa agertzen ez bada  
edo akatsik aurkitzen baduzu dei  
egin datorren asteko asteartea  
baino lehen 77 08 15 telefonora  
edo zatoz ARKOra (Azoka, 1).

**MARTXOAREN 2an** egon  
litezkeen akatsen  
zuzenketa orri bat  
argitaratuko dugu.

Mila esker.

KOMUNIKABIDEAK

Leintz Bailarako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

## Zure telefonoaren lagunik onena!





**K**arnabal martitzean giro tropikalean zabaldu zituen atek Biona tabernak. Tabernariak asko lagundu zuten giroa berotzen baina ez bakarrik Bionan, alde zaharreko gainontzeko tabernak ere ezin hobeto apainduta agertu ziren gauean.



**L**ekaimeak eztarria bustitzeko asmoz tabernara sartu eta begira nor aurkitu zuten, Obispo jauna edaria bedeinkatzen. Ze poza hartu zuten Santa Faustina konbentuko Sor Balda, Sor Amena, Sor Txiko, Sor Olla eta Sor Tijak



**H**aratuzteetan eguraldiak lagundu ez zuen arren, pailazoak ume eta nagusien barre algarak sortarazten saiatu ziren. Saiatu eta lortu ere.



**B**egira nortzuekin egin genuen topo. Drakulinek nahikoa lan izan zuten arrasatearren lepoetan euren aztarnak uzten. Azkenean horrenbeste lepo zurpatu ondoren, lur jota bukatu zuten gaua.







**I**le hori polit hauek Suediarrak dira eta martitzenean senargai bila etorri zirela jakin dugu. Itxura denez bertako mutilak baino hemengo morrozkoak gogokoago dituzte. Egia esan ez dakigu ligatu zuten edo ez, baina horrenbeste mutilekin zerbait jausiko zen!!




**I**jitoek ere ez zuten Arrasateko haratuzteak galdu nahi izan eta ume, aitona, hauntza.. prozeziño eta guztiz agertu ziren.



**S**an Andresko herri eskolako ikasle eta irakasleek arratsaldeari kolorea eman zioten protagonista nagusiak izan ziren. Eurak egindako sardina sorbalda gainean jarri eta kalez kale ibili ziren.



**G**oiz goizetik bola majikoa mahai erdian jarri eta txartel guztiak saldu bitartean etorkizuna asmatzen igaro zuten goiza Gema eta Pili igerleek. Saldu, dezente saldu zuten baina bola magikoak ez zuten saritutako zenbakia asmatu.



**B**asamortuko taureg-ak ere bisitari izan genituen. Bidaia luzea egin ondoren, jota gosituta ogitarteko batzuk eroatera joan ziren. Ezetz asmatu zer jan zuten? patata tortilla euskalduna.





AEKko ikasle eta irakasleek martitzenean piper egin eta **elur gizon dotore bat** egiten igaro zuten goiza. Egileek ezin hobeto pasa zuten eta horren lekuko ateratako argazkia.



Mara mara bota du elurra aste honetan. Herria zuri kolorez jantzi da eta herritarrok ohituta ez gauden zenbait gauza egin behar izan dugu, esatebaterako **kotxeari kateak jarri**. Argazkikoak kateak jartzeko gupila kentzen harrapatu genituen. Hain zailak dira jartzeko? Ikusitakoak ikusita hori dirudi!



Eskizaleek ez dute Formigal, Luz ardiden, Sierra Nevada edo beste eski estazio batera joan beharrik izan. **Arrasate inguruko zelaia**k eski pista bihurtu dira egun hauetan eta eskiatzaileek ezer ordaindu barik, kirol zuria praktikatu ahal izan dute etxe aldamenean.



*Meca tailerretan Megane berria aurkeztu zen otsailaren 14an. Renault markako azken modelo berri eta dotorea ikusteko asmoz,*

*jende mordoak hurbildu zen aurkezpenera. Hurbildutakoek kotxea ikusi eta luntx gozoa dastatzeko aukera izan zuten.*



**Arrasateko AEKko ikasle eta irakasleek mariskada zozketatzeko erri-fak saldu zituzten domekan Aretxabaletako Hara-**

**tuzteetan. Zenbaki sari-tua 2.641a izan zen eta zorteduna Silvia Solana arrasatearra. Zorionak Silvia eta on egin!**



# Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Hamaseigarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Silverio Alvarez eta Xabier Olabarria*
- *Taldeen aurkezpena: Excavaciones Lete, Trikiti, Kriskibalda, Ganbelas, Adelaida-Haizea eta Berango Sukaldeak*

**A**zken ahalegina baino ez da

falta lehen fasea bukatzeko eta oraindik txapelketa zabal zabalik dagoela esan daiteke.

Guztira 11 postu erabakiko dira 17. ihardunaldian. Postu gehiegi partidu bakarrean erabakitzeko baina futbola horrelakoa da eta neurketak jokatuz arte ez dago zer gertatuko den jakiterik.



## ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

## Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

### SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA

Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



**Sailkapenak**

**Emaitzak**

**A taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Frantziskanner	16	12	3	1	73	37	<b>27</b>
Orlando Piratas	16	13	0	3	91	46	<b>26</b>
Argi ibili	16	11	1	4	105	41	<b>23</b>
Totem	16	10	2	4	78	48	<b>22</b>
Sokoakoak	16	9	4	3	91	53	<b>22</b>
Sortu informatika	16	9	3	4	72	63	<b>21</b>
Kamasutra	16	8	5	3	69	38	<b>21</b>
Arrasate Kirolak	16	9	2	5	50	50	<b>20</b>
D.A Iriztu	16	9	1	6	78	51	<b>19</b>
Jotakabau	16	8	3	5	62	51	<b>19</b>
Kakajauri	16	6	3	7	50	52	<b>15</b>
Bukanak	16	5	3	8	56	33	<b>13</b>
Ugly Txinato	16	4	4	8	48	70	<b>12</b>
Gualtrapas	16	4	0	12	46	80	<b>8</b>
Alealee	16	3	1	12	36	108	<b>7</b>
Gaztetzokoa	16	3	1	12	37	109	<b>7</b>
Toss Tehaman	16	2	1	13	20	93	<b>5</b>
Tronkoteak	16	0	1	15	8	21	<b>1</b>

**B taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	16	14	1	1	82	41	<b>29</b>
Txeyenex	16	14	1	1	66	29	<b>29</b>
Adelaida Haizea	16	12	1	3	82	32	<b>25</b>
Hirei	16	11	0	5	68	30	<b>22</b>
Okoretegi	16	10	2	4	61	28	<b>22</b>
AC Surcos	16	10	1	5	73	58	<b>21</b>
DKB	16	10	0	6	60	51	<b>20</b>
Los heredia	16	9	2	5	41	34	<b>20</b>
Lorategi	16	9	1	6	45	40	<b>19</b>
6. Proiektua	16	7	2	7	40	45	<b>16</b>
Ojo Avisore	16	6	3	7	54	51	<b>15</b>
Fraguel gol	16	5	1	10	38	54	<b>11</b>
Altza Porru	16	4	1	11	30	43	<b>9</b>
Aizpun Bila	16	3	2	11	36	33	<b>8</b>
Kopyprest	16	3	1	12	38	105	<b>7</b>
Berango Sukal	16	3	0	13	36	55	<b>6</b>
Los dalton	16	2	1	13	43	96	<b>5</b>
Kirten Tropel	16	2	0	14	23	70	<b>4</b>

**A Taldea**

Kakajauri 3 - Sokoakoak 3  
 Arrasate Kir 3 - Sortu inform 4  
 Argi ibili 3 - Orlando Piratas 4  
 Bukanak 0 - D.A Iriztu 1  
 Toss Tehaman 0 - Jotakabau 1  
 Gaztetzokoa 0 - Ugly Txinato 1  
 Tronkoteak 0 - Gualtrapas 1  
 Totem 8 - Alealee 0

**B Taldea**

Lso heredia 1 - Okoretegi Tab 3  
 AC Surcos 1 - Hirei 7  
 Ojo Avisore 1 - Txeyenex 2  
 Berango Suk4 - Adelaida Haizea 6  
 Fraguel Gol 1 - Altza Porru 0  
 Aizpun Bila 0 - Los Dalton 1  
 DKB 2 - Lorategi 1  
 Fosforos 4 - Kirten Tropel 1  
 Kopyprest 1 - 6º Proiektua 3

**D Taldea**

Const Fercon 1 - Txarokis 0  
 No Comment 2 - Potrosorri 5  
 Anbotoste 3 - Betraye 9  
 Insert Coin 8 - Ganbelas 4  
 Nuevo taberna 5 - HMKL 2  
 Los DXimy 1 - Trikiti 3  
 Lautherbrunnen 2 - A ti que te importa 5  
 Elisabeth 0 - Irati STS 7  
 Borrock Roll 5 - Arrasate Zoo 2

**E Taldea**

Exc Lete 2 - Cerv Leintz 3  
 Pub people 2 - Aurrera Bolie 4  
 Resakas 1 - Pepelus 2  
 Zotz Motz 1 - Danok Lagun 1  
 MSM Int 1 - Baneuko 0  
 Petroleros 4 - Koka Juniors 2  
 Kriskibalda 4 - Ke Oxtias 5  
 Cartonajes Igamo 3 - Leya 7  
 Artzankos Udalaiz 2 - Perrahotsa 1

**D taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
A ti que te importa	16	13	1	2	71	44	<b>27</b>
Irati STS	16	13	0	3	91	36	<b>26</b>
Lautherbrunnen	16	11	2	3	87	50	<b>24</b>
Trikiti	16	10	3	3	68	28	<b>23</b>
Nuevo taberna	16	10	3	3	85	46	<b>23</b>
Betrayer	16	11	1	4	74	44	<b>23</b>
Anbotoste	16	10	2	4	60	42	<b>22</b>
Insert Coin	16	9	1	6	74	57	<b>19</b>
Borrock roll	16	9	0	7	62	51	<b>18</b>
Ganbelas	16	7	3	6	57	57	<b>17</b>
Los Dimy	16	6	4	6	40	45	<b>16</b>
Potrosorri	16	3	3	10	42	57	<b>9</b>
Elisabeth	16	3	3	10	26	60	<b>9</b>
No Comment	16	4	0	12	40	69	<b>8</b>
Arrasate Zoo	16	3	2	11	35	57	<b>8</b>
HMKL	16	3	2	11	41	90	<b>8</b>
Cons Fercon	16	2	1	13	37	120	<b>5</b>
Txarokis	16	1	1	14	36	73	<b>3</b>

**E taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Aurre Bolie	16	13	2	1	71	39	<b>28</b>
Cerv leintz	16	12	2	2	63	29	<b>26</b>
Pub People	16	12	0	14	97	48	<b>24</b>
MSM Ing	16	10	2	4	63	28	<b>22</b>
Zotz Motz	16	8	3	6	54	44	<b>19</b>
Artzankos Udalaiz	16	8	3	6	50	43	<b>19</b>
Danok lagun	16	7	5	4	53	50	<b>19</b>
Koka Juniors	16	9	0	7	57	54	<b>18</b>
Perrahotsa	16	9	0	7	50	44	<b>18</b>
Pepelus	16	8	1	7	59	57	<b>17</b>
Petroleros	16	6	4	6	41	52	<b>16</b>
Leya	16	5	3	8	47	51	<b>13</b>
Excavaciones Lete	16	6	0	10	52	61	<b>12</b>
Ke Oxtias	16	6	0	10	57	64	<b>12</b>
Resaka	16	3	2	11	24	61	<b>8</b>
Cartonajes Igamo	16	3	1	12	53	80	<b>7</b>
Kriskibalda	16	3	0	13	45	73	<b>6</b>
Baneuko	16	2	0	14	39	106	<b>4</b>

**Hurrengo partiduak**

**17. ihardunaldia**

**Larunbata 24  
Zaldibar**

8.50 Fraguel Gol - Okoretegi taberna  
 10.00 Zotz Motz - Aurrera Bolie  
 11.00 Resakas - Kriskibalda  
 12.00 Irati STS - Trikiti  
 13.00 Los Heredia - 6º Proiektua  
 14.00 Kakajauri - Alealee  
 15.00 Insert Coin - Potrosorri  
 16.00 Totem - Jotakabau  
 17.00 Betrayer - Ganbelas  
 18.00 Leya - Koka Juniors  
 19.00 Fosforos - Lorategi

**Iturripe A**

12.00 Cartonajes Igamo - Ke Oxtias  
 13.00 No Comment - Los Dimy  
 14.00 Gualtrapas - Ugly Txinato  
 15.00 Borrock Roll - HMKL  
 16.00 Kirten tropel - Los Dalton  
 17.00 Cons Fercon - Arrasate Zoo  
 18.00 Pub People - Petroleros

**Iturripe B**

14.00 Anbotoste - Lautherbrunnen  
 15.00 Exc Lete - Perrahotsa  
 16.00 Berango Sukaldeak - Hirei  
 17.00 Elisabeth - A ti que te importa  
 18.00 MSM Ingenieria Integral - Cerv Leintz

**Igandea 25  
Zaldibar**

8.50 Pepelus - Danok lagun  
 10.00 Ojo Avisore - DKB  
 11.00 Argi ibili - Kamasutra  
 12.00 Txeyenex - Adelaida haizea  
 13.00 Orlando Piratas - D.A Iriztu



**Protagonista****Silverio Alvarez  
Frantziskanner**

— Lehen fasea ona izan da Frantziskanner taldearentzat, ezta?

— Bai, ia ez dugu sinesten baina multzoko liderrak gara. Neurketa gehienak irabazi ditugu, batez ere gogo handia jarri dugulako. Taldea beharbada ez da teknikoki oso ona baina jokariok dena ematen dugu partiduetan. Bestalde onartu behar da behin baino gehiagotan zortea alde izan dugula.

— A multzoa gogorra izan da?

— Baietz esango nuke. Hala ere, talde sendoekin emaitza onak lortu ditugu eta itxuraz makalagoekin gehiago kostatu zaigu neurketak aurrera ateratzea.



— Bigarren fasea nolakoa izango da?

— Zaila zalantza barik. Ni oso ezkorra naiz eta hurrengora sailkatzeko aukerarik ez dugula izango pentsatzen dut. Nire taldekideek berriz, aurten goian ikusten dute taldea.

— Beste urteetan sailkatu zarete bigarren fase-

rako?

— Aurtengoarekin lau urte daramatza txapelketan parte hartzen eta birritan lortu dugu bigarren fasea sailkatzea, orain bi urte eta aurten.

— Faboritorik bai?

— Argi Ibili petral hasi zen baina azken boladan kementsu ari da jokatzeko eta uste dut kontuan hartzeko taldea dela.

— Ze final ikustea gustatuko litzazuke...

— Frantziskanner eta Argi Ibili. Ea bada asmoa betetzen den!

— Beste neurketak ikusten dituzu?

— Nahi baino gutxiago. Hala ere, jokatzeko ikustea baino gehiago gustatzen zaidala esan behar dut.

**Labur**

■ **BILERA GARRANTZITSUA**  
Otsailaren 27an, martitzena, bigarren fasea sailkatzen diren taldeek bilera izango dute Monterronen arratsaldeko 7etan.

■ **HIRU TALDE KANPOAN**  
Bukanak, Gazte txokoa eta Baneuko txapelketatik kanpo geratu dira azken ihardunaldian epaitzera ez zirelako aurkeztu.

■ **SAILKATZEKO AUKERAREKIN TALDE ASKO**

A multzoan bost talde daude sailkatuta eta oraindik hiru postu jokuan. Kamasutra, Sortu Informatika, Arrasate Kirolak, D. A. Iriztu eta Jotakabau taldeen artean erabakiko dira hiru postuak. Bn beste bost taldek lortu dute bigarren faseko txartela, gaitontzeko hiru postuen lehian AC Surcos, Los Heredia, DKB eta Lorategi arituko dira. D multzoan berriz, dagoeneko 7 talde daude matematikoki sailkatuta. Jokuan beraz, postu bakarra. Insert coin eta Borrock Rollen artean erabakiko da. Azken multzoan, une honetan lau talde baino ez daude sailkatuta eta beste lau falta dira. Borroka horretan sei talde: Zotz Motz, Danok Lagun, Artzankos Udalaiz, Perrahotsa, Koka Juniors eta Pepelus.


**Protagonista****Xabier Olabarria  
Pepelus**

— Neurketa erabakior eta garrantzitsua jokatu duzue?

— Oso garrantzitsua izan da guretzat. Gaurkoa eta hurrengoa irabazita, bigarren faseko txartela lortuko genuke. Gaurkoa irabazi dugu beraz ate guztiak zabalik ditugu sailkatzeko.

— Hurrengo neurketa zeinen kontra?

— Danok Lagunen kontra neurtuko ditugu indarrak. Hauek gu baino 2 puntu gehiago dituzte eta garaipena lortzea ez da nolanhiko gauza izango. Hala ere, Pepelusek txapelketa ondo hasi ez bazuen ere, azken partiduetan maila ona erakutsi du.



— Urtero sailkatzen zarete?

— Pepelus askotan sailkatu da. Niretzat txapelketan parte hartzen dudana lehen urtea da.

— Nola ikusten duzu bigarren fasea?

— Guk mantso mantso

jokatzeko dugu, ondo pasatzea gustatzen zaigu. Gogoia jarri behar denean hortxe izaten gara baina gogorkerira heldu barik. Bigarren fasean ez dugu helburu zehatzik, ondo irtetzen bada primeran,

— Joaten zara txapelketako partiduetan ikustera?

— Ume txikiak ditut eta egia esateko ez dut denborarik Zaldibar edo Iturripera joan eta partiduetan ikusteko. Denbora izanez gero, gustora joango nintzateke baina orain beste zeregin batzuk ditut.

— Final politena zein izango litzateke?

— Pepelus eta beste edozein talde. Pepelus bertan izanda aurkariak ez du axola.





**Excavaciones Lete**



**Trikiti**



**Kriskibalda**



**Ganbelas**



**Adelaida-Haizea**



**Berango Sukaldeak**

**ANBOTO  
BODEGA**

*Auzo giro jatorra!*

Anboto, 1 behea  
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE



**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak


Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



# Triste ala gaixo nago?

Maider Egües

**Itxuraz ez zaio ezer gertatzen. Ez dauka kalenturarik, ezta inolako minik ere. Bere inguruan daudenek ez dute ulertzen bere kexu eta malkoen arrazoia eta ahalegin txiki bat egin ez gero, itxuraz guratia den tristura horretatik atera ahal izango litza-tekeela uste dute. Alperrik dira "aldatu ezazu aurpegi hori!" edo "lagunekin kalera atera eta ondo pasatu!" moduko esaldiak. Bapatean barrura erori den zulo beltz horretatik ateratzea ezinezkoa iruditzen zaio gaixoari eta ez da inon ondo aurkitzen. Pertsona horrek depresioa dauka, modako gaitz zori-gaiztoa.**



**D**eprimitu baten sufrimendua izugarria da. Esperientzia gainditu dutenek diote ez dagoela horren tristura handia sortzen duen bestelako gaitzik. Gaixotasun horretan erori ez direnek ez ei dute min hori neurtzeko erreferentziarik, horregatik, deprimitu baten sufrimendua bakarrik beste deprimitu batek ulertu dezakeela esaten dute. Depresio larria dutenek heriotza

desio ei dute. Zergatik? Ezin izaten dutelako sufrimendu hori jasan. Horren izugarria da depresioa.

Dena den, depresio mota asko dago eta denak ez dira hain larriak. Orokorrean bi depresio mota bereizten dira: endogenoa eta distimia. Lehen larriena da eta gaixoak deprimিতuta egoteko arrazoiarik ez du, berez etortzen da.

Bigarrena kanpoko faktore batek eraginda sortzen da, adibidez, senitarteko baten heriotzak eraginda. Depresioak arrazoi argi bat daukanean errezagoa izaten da sendatzeko. Mikel Cartagenarentzat, Erguingo Buru Osasuneko zentruko psikiatrentzat, depresioek beti daukate arrazoiaren bat. "Gaixoak bere tristura eta angustia-

ren arrazoia ez dakienean, psikoterapia sakon bat egiten da eta azkenean, betik aurkitzen dugu arrazoia. Txikitako frustrazioaren batean egon daiteke depresioaren jatorria".

## GAIXOTASUNA EZIN ONARTU

"Gaixo bakoitza depresio bat da" dio Mikel Cartagenak. Depresioan erortzen diren



pertsonak sintoma desberdinak izaten dituzte: batzuk autoan doazela zorabioak izaten hasten dira eta beste batzuk, besterik gabe, sekulako tristuraz eta ohetik jaikitze gogo barik esnatzen dira goiz baten. Hortik aurrera txarrera egiten dute, psikiatrarengana joateko ordua heldu zaiela konturatu arte. Gaixo batzuentzat ez da pauso erraza izaten, ez dute buruko gaitz bat daukatela onartzerik nahi izaten eta. Hala ere psikiatra eta psikologoak laguntza handia izaten da eta hauek konfidantza handia ematen diote gaixoari. "Gaixoari galdera asko egiten diogu lehenengo aldiz etortzen denean, era guztietako galderak, helburu garrantzitsuen depresioaren arrazoia aurkitzea da eta. Lehenengo bisita hori oso garrantzitsua da, mediku eta gaixoaren artean konfidantzazko harreman bat sortzeko. Hori lortzen ez badugu, gaixoak ez digu galdetuko diogun guztiari erantzungo hurrengo bisitetan eta ezin izango diogu modu egokian lagundu. Gainera, deprimituek euren kezka gordetzeko joera daukate, oztopo asko jartzen dizkigute eta gaixoak direla onartzea kostatzen zaie. Gaixo askok, egiten dizkiegun galdera gogorak ezin jasan eta kontsultaren erdian alde egiten du" dio Cartagena psikiatrak.

Tratamendua lehen kontsultaren ondoren jartzen zaio gaixoari. Erguingo Buru Osasunerako Zentruan adibidez, mediku talde guztia bildu eta gaixo bakoitzaren kasua aztertu eta gero erabakitzen da tratamendu bat edo bestea. Hala ere, farmakoak ez dira nahikoa izaten depresioak sendatzeko. Mikel Cartagenak dioenez, psikoterapiak botikak besteko garrantzia du.

### **FAMILIAK EZ DAKI ZER EGIN**

Deprimituak asko sufri-

tzen du, baina baita bere familiarak ere. Senitartekoez ez dute jakiten gaixoari nola lagundu eta askotan, animoa altxatzeko botatzen dizkioten esaldiekin min handiago egiten diote. Gaixo larriek egun osoa etxetik irten barik, jan barik eta negarrez pasatzen dute. Lagun batek bisita egiten dienean okerrera egiten dute, ez dute eta inorekin hitzegiterik nahi izaten. Norbaitek sorbaldan animo kolpetxo bat ematen dienean, zulo beltz horretan beherago erortzen dira eta sentitzen duten gauza bakarra, ulertuak ez izatea. Deprimituak ingurukoek bere sufrimendua ulertzea besterik ez du nahi izaten eta normalean inorekin hitzegin nahi izaten ez badu ere, sendatzen direnean asko eskertzen dute euren ondoan egon izana.

Bestalde, bada familian laguntzarik aurkitzen ez duen gaixorik. Mikel Cartagenak zera dio, "arrazoi zehatzik ez duen depresio bat oso ezerosoa da ingurukoentzat. Senitarteko askok paso egiten du, gaixoarengandik urrundu egiten dira ez dutelako euren tristura eta kexuen arrazoia ulertzen. Kasu horretan

gaixoa ingresatu egin behar izaten dugu, etxean okerrera egiten du eta."


### **SUIZIDIOA ANTZEMATEN DENEAN**

Bi arrazoi daude depresioa daukan gaixoa ospitaleratze ko: etxean laguntzarik ez jaso tzea eta bere buruaz beste egiteko gogoia edukitzea.

Esan bezala gaixoa lehenengo aldiz psikiatrarengana joaten denean azken honek galdera asko egiten ditu, horietako bat suizidioari buruzkoa izaten da. Gaixo batzuk onartu egiten dute euren buruaz beste egin nahi dutela eta medikuak ospitaleratzeko proposa-

mena egiten denean, arazorik gabe baietza

ematen dute. Beste kasu batzutan berriz, ez da hain erraza izaten. Gaixoak suizidioaren asmoa izkutatzen dio psikiatrari. Kasu horietan psikiatraren abilezia sartzen da jokuan. "Gaixoa gezurretan ari dela somatzen dugu askotan. Horiek izaten dira arrisku tsuenak, suizidioa gauzatzeko benetako gogoia daukatenak. Suizidioari buruzko zeharkako galdera pila bat egiten diogu, nekatu arte eta azkenean, nahiz eta eurek ezetz esan, bere buruaz beste egiteko gogoia daukatela konturatzen gara" azaltzen du Cartagena medikuak.





Gaixoa ospitaleratu ahal izateko bere onespina behar izaten du medikuak. Gaixoak onespina ematen ez badu, medikuak laguntza eskatzen dio familiari eta azken honek ezin badu gaixoa konbentzitu, medikuak epaitegiaren agindu bat lortzen du indarrez ospitaleratzeko.

Kontua zera da: ospitalean denbora batean eta tratamendu egokiaz egon ondoren, gaixoak bere familiari eta medikuari eskerrak ematen diela ospitaleratu izanagatik.

#### ZORIONTASUNAREN MODA

“Badirudi zorionsu bizi izatea moda bat dela. Triste bizi bazara gaixorik zaude”

**Gaixoak bere buruaz beste egiteko intentzioa badu eta honek ingresatzerik ez badu nahi, medikuak epaitegiaren agindu bat lortu dezake gaixoa indarrez ospitaleratzeko**

dio psikiatruk. Lehen, tristura sentimendu noble bat zen eta Cartagenak dioen moduan, “gure guraso eta aiton-amonek depresioan erortzeko arrazoi gehiago zituzten, baina aurrera egiten zuten botika barik”. Depresioa betidanik existitu da baina jendea lehen ez zen horregatik medikuarengana joaten.

Orain deprimituek makina bat pilula hartzen dute eta horrela minduta dauden neurotransmisoreak sendatu egiten zaizkie. Baina, posible al litzateke depresioa botika barik sendatzea? Cartagenak baietz dio baina ez duela merezi. “Psikoterapia sakon eta luze batekin posible litzateke baina botikekin azka-

rango sendatzen da. Gainera antidepressiboek ez dute eragin txarrik sortzen eta deprimituari tristura eta sufri-mendua arintzen diote”.

Bizitzaren erritmo zoroaren erruz, jende asko tristura sakonean erortzen da bapatean. Estresagatik adibidez, jende askok baja hartu behar izaten du eta enpresak hasi dira konturatzen gaixotasun honen arriskuaz. Gainera, ez da hilabete gutxiko baja izaten: deprimitu asko bi urtez egon izan da lana egin barik. Depresioa, psikiatriaren eta farmako enpresen onerako, laneko bajaren bigarren arrazoia da gaur egun. XXI. mendeko gaitza dela diote batzuk.

## Bi esperientzia

“**A**utoan nindoala zorabiatu egin nintzen. Medikura eraman eta mila froga egin zidan. Txagorritxun astebete pasa nuen ingresatuta baina ez zidaten ezer aurkitu eta etxera bidali ninduten. Sekulako tristura eta egonezina sentitzen hasi nintzen eta azkenean, psikiatra batengana joatea erabaki nuen. Denbora asko pasa nuen psikiatraz psikiatra, batek ere ez ninduen ondo jartzen eta. Azkenean lagun batek psikiatra bat gomendatu zidan eta harekin nabil orain. Orain konturatzen naiz zeren bila nenbilen: sentitzen nuena ulertu eta nire penak entzuteko prest zegoen mediku baten bila, aurrekoek botikak baino ez zizkidaten ematen. Orain askoz hobeto nago, nahiz eta botikak hartzen ditudan oraindik. Hiru urte daramatzat horrela eta denbora luzean etxetik irten barik eta negarrez pasatu dut. 46 kilo pisatzera heldu nintzen, gauza guztien errua nire buruari botatzen nion, ez nuen lorik egiten eta gauak sukaldean eserita negarrez pasatzen nituen... izugarria izan da. Bi lagunek ere asko lagundu didate. Etxeko lanak egitera etortzen ziren eta nirekin egoten ziren etxean. Noizean behin kafe bat hartzera joaten ginen baina ni ezin nintzen leku itxietan sartu, ito egiten nintzen. Orain hobeto nago; goizean esnatu eta semea eramaten dut eskolara. Dotore jantzeko gogoa daukat berriz ere, lehen ez nuen ezer egin nahi. Oraindik botikak hartzen ditut eta egun hobeak eta txarragoak ditut. Depresioa gainditzen ari naizela ikusten dut baina berriz erortzeko beldur naiz.”


“**I**nolako arrazoirik gabe argirik ikusten ez zaion zulo beltz batera erori nintzen bapatean. Ezin nintzen nire 3 seme-alabekin eta senarrarekin egon, ez nuen inorekin hitzegiterik eta egoterik nahi. Telefonoa entzuteak haserrarazten ninduen, ez nuen bisitarik jasotzerik nahi. Ezin nuen ezer jan, ezin, eta izugarriko angustia espresio bat jarri zitzaidan aurpegian. Estatuko psikiatra onenekin egon nintzen baina alperrik. Erdi zorabiatuta uzten ninduten botikak ematen zizkidaten eta ez nintzen errealitateaz jabetzen. Ezin nintzen bakarrik etxean egon eta nire ama etortzen zen etxeko gauzak egitera. Askok sufriarazi nion, egunero egunero nire burua leihotik behera bota nahi nuela esaten nion eta. Nire seme-alabengan neukan ardurak bakarrik eragozten zidan, ezerk gehiagok. Azkenean nire lagun batek, medikua bera, ikusi ninduen eta harekin egin nuen hobera. Makina bat ordu pasatu zuen nirekin hitzegiten, nire penak entzuten... baina egia esan ez nuen triste egoteko arrazoirik aurkitzen. Medikua hori nire salbamena izan zen. Bere telefonoa alboan izaten nuen beti; zenbatetan deitu, lana utzi eta niregana etorri den! Sekulako dependentzia sortu zitzaidan nire senarra baino gehiago behar nuen medikua. Pentsa, bi urterako kanpora joan behar zela esan zidan eta berarekin joan nahi nuen! Gutxinaka gutxinaka hobera egin nuen, jaten hasi nintzen, umeekin eta senarrarekin egoteko gogoa etorri zitzaidan eta kalera ateratzen hasi nintzen. Ez diot inori gaixotasun hau desio eta euren buruaz beste egiten dutenak oso ondo ulertzen ditut orain.”



# Urbina Maltzaga eta Arteixo garaipenaren bila

Urbina Maltzagak neurketa zaila izango du Arteixoren kontra zapatuan arratsaldeko 7etan A coruña. Galiziako taldea 4.a da sailkapenean 38 punturekin, 14 neurketa irabazi eta 10 galdu ondoren. Arrasateko taldeak ez du lan makala izango aurkarien sistema bertan behera utzi eta eurena ezartzeko. Samaniegoren mutilek azken astetan 4 garaipen jarraian lortu dituzte eta 8. posturaino heldu dira, guztira 12 neurketa irabazi eta 12 galdu ostean.

Une honetan igoerako play off-a jokatzeko aukera izango lukete Arrasateko jokalariek baina ez da ahaztu behar oraindik ez dela



Urbina Maltzaga garaipenaren bila Galiziaraino.

lehen fasea bukatu eta neurketa gogorak geratzen zaiz-

kiola Arrasateko taldeari, halanola: Viña Costeira, Espolon,

Patronato Bilbao, Clesa Ferrol eta Vino de Toro. Neurketa horien guztien artean zailena sailkapenari begira Bilbao Patronatoren aurkakoa izan daiteke, Bizkaiko taldea liderra da eta. Arrasate eta Arteixok elkarren kontra jokatu zutenean Iturripen, Urbina Maltzaga 76 eta 74 nagusitu zen nahi baino larritasun gehiago pasa ondoren. Zapatuan Samaniegoren mutilek garaipena lortuko balute sailkapeneko lehen postuei tinko eusteko aurrerapauso itzela emango lukete. Galduta, gero eta zailagoa jarriko litzaietxe play off-a, baina ez ezinezkoa. Beraz aurtengo helburuak lortzeko ezin du huts egin Urbina Maltzagak.


## Eskubaloikoek garaipena lortzeko aukera dute

Arrasate eskubaloit taldea Iruñara joango da eta Beti Ona taldea izango du aurrean. Neurketa domekan eguerdiko 12etan jokatu da. Talde nafarra ez dabil denboraldi ona egiten. Gaurdaino 9 neurketa galdu ditu, bi berdindu eta lau irabazi, 10 punturekin sailkapeneko 9. tokian dago. Datu hauek kontuan hartuta, Herreroen mutilek aukera paregabea izan dezakete partidua irabazi eta puntuekin etxera etortzeko. Arrasateko entrenatzailearen berbetan Beti Ona ez da talde sendoa eta euren jokoa erraz kontrolatu daiteke batez ere, Sanchez eta Etxeberria joka-

lariei ez badiete dakiten bezala jokatzeko uzten.

Arrasateko taldean baja bakarra egongo da, Kortabarria. Duela aste batzuk lesionatu egin zen eta hobera egin duen arren, oraindik ez dago jokatzeko moduan. Lehen bueltan talde biek elkarren kontra jokatu zutenean 21 eta 23 nagusitu zen Beti Ona.

Domekan zer gertatuko den esaterik ez badago ere, Herreroen mutilak urduri jartzen ez badira eta partiduko erantzunkizuna hartzen badute denboraldiko bigarren garaipena lor dezaketekete. Beti Ona taldearen kontra Iruñean.





# Dorletako Ama eskolako txirrindulariak denboraldia hasteko gertu

Dorletako Ama txirrindulari eskolak 96. denboraldiko aurkezpena egingo du zapatuan. Goizeko 10.30etan Dorletako Santutegian lore eskaintza egingo diote Amabirjinari, txirrindularien zaindariari. 11.30etan taldeetako kide eta babesleen aurkezpena egingo da Venta-Fria jate-txean. Behin ekintza horiek bukatuta bertara hurbiltzen diren guztiek luntxa izango dute.

Aurten lau taldek osatuko dute Dorletako Ama eskola. Infantiletan hamar txirrindularik hasiko dute denboraldia Rafa Antia eta Bernal zuzendarien gidaritzapean. Arrasate Kirolak izango da babeslea. Lehen mailako kadeteetan J. M. A. taldean, sei txirrindulari arituko dira Juan Luis Agirrerren aginduetara. Bigarren mailako kadeteek ere J. M. A. izango dute babesle. Hamar txirrindularik osatuko dute taldea eta zuzendaria Jose Galán izango da. Talde nagusia lehen eta bigarren mailako jubenilena izango da, Fagor taldea. Bi zuzendari izango



Zapatuan eguraldiak laguntzen badu egingo da aurkezpena.

ditu, Jose Sedano eta Luis Sebastian, txirrindulariak berriz hamasei.

Infantilek izan ezik gaintzeko txirrindulariek martxoaren 9-10eko aste-bukaeran hasiko dute denboraldia. Lehen mailako kadeteek Beasainen izango dute zita, bigarrenekoak Azpeitira joango dira eta jubenilen topalekua Eibar

izango da.

Bestalde Dorletako Ama eskolaren zuzendaritza batzordean aldaketa batzuket eman dira. Gaur arte Jose Mari Roldan zen presidentea, orain berriz Ane Guedes da. Dorletako Ama txirrindulari eskolak 5 milioiko aurrekontuarekin egingo dio aurre aurtengo denboraldiari.

## Mondra eta Touring aurrez aurre Atxabalpen

3. mailako Mondrak Touring-en bisita jasoko du domekan Atxabalpen arratsaldeko 4.30etan. Bötatako elurraren ondorioz futbolaria zuri zuri dago eta izotza egingo balu behar bada ezingo litzateke neurketa jokatu baina eguraldiak hobera eginez gero, aipatutako orduan izango da. Arrasateko taldearentzat derri-gorrezkoa da garaipena lortzea, puntu premia du eta etxeko partidua ez baditu aurrera ateratzen 3. mailari eusteko aukerak galdu ditzake. Touring taldea sailkapeneko 12. tokian dago 32 punturekin. Gaurdaino bederatzi neurketa irabazi ditu, bost berdinu eta hamaika galdu. Mondrak berriz ezin du 19. tokitik gora egin. Denboraldia hasi zenetik zuloan sartuta dago eta irteteko saiakera guztiak antzuak izan dira. Domekarako Zivojevic entrenatzaileak bi baja izango ditu, Beñat Apraizek eskumako hankan zaintiratua izan delako eta Juan Luis Aranburuzabalaren txartelak direla eta.

## Emakumeek lider jarraitzeko garaipena behar

Hondarribia eta Mondra-  
ren arteko norgehiagoka egongo da ikusgai Hondarribian zapatuan arratsaldeko 3.30etan. Arrasateko emakumeek joan zen astean atseden izan zuten beraz, indar berrituta jokatuko dute zapatuan. Bestalde, esan behar da irabazteko txartel guztiak arrasatearrek dituztela. Izan ere, liderrak dira eta gaur arte ondo baino hobeto erakutsi dute zergatik dauden goialde horretan.

## Deba Garaiko judoken topaleku Arrasate

Deba Garaiko judoek entrenamendu berezia izango dute Musakolako kiroldegian zapatuan. Zortzi urtetik beherako judokak etorriko dira, gutxienez eguraldiak laguntzen badu. Eskola arteko ihardunaldi hauek Foru

Aldundiak antolatzen ditu urtero eta aurten orain bi urte moduan Arrasateri tokatu zaio txanda. Guztira 120 bat neska-mutil elkartuko dira goizeko 10etatik 11etara. Txikien eginbeharra bukatutakoan 13 urtetik 15 urte bitarte-

koek txapelketa izango dute, gehienbat Deba garaian dagoen maila ikus-teko. Beraz, ez dira sariak banatuko baina inguruko judoek zer egiteko gauza diren erakutsi ahal izango dute Musakolako kiroldegian.



Miren Arregi

# Hikaren erabilera zuzena

AEDk, AEK eta Udal Euskaltegiaren laguntzaz hikan hitzegiten egiten ikasteko baretetgia antolatu du martxoaren 9a eta 10erako. Miren Arregi irakasleetarikoa bat izango da AEDk antolatutako baretetgian. Berak esaten duenez, hika egiteko gogorik badago Arrasaten baina jende askok ez ditu hizkera honen arauak ondo ezagutzen.

— Ze erabilera dauka hikak Arrasaten?

— Gazteen artean hika egiteko joera handia dago kalean, behintzat hika egiteko gogoia dutela ikusten da, hikak hurbiltasun bat sortzen du eta.

— Ondo erabiltzen da?

— Gazte askok hikaren zenbait forma ezagutzen ditu baina ez hikaren kultura. Edozein momentutan eta edozein lekutan erabiltzen dute.

Bestalde ez dituzte neska eta mutilen formak erabiltzen, ez ez dakizkitelako, automatismoa, bapatekotasuna edo erreflejoa falta zaielako baizik. Nire ustez, gazte askok hika hitzegin nahi du baina muga batzuk dituztela konturatzen dira. Hori dela eta, ikastaro bat antolatzea erabaki genuen.

— Noiz egin behar da hika?

— Egia esan, ez dago arau zehatzik. Iaz Euskaltzaindiak hikako forma alokutiboak atera zituen baturako baina ez du araurik atera oraindik. Hala ere, badaude mundu guztiak errespetatzen dituen arau batzuk. Adibidez, kolektibo baten aurrean ez dago hika egite-



rik; gazte batek adineko bati ez dio hikarik egin behar ere, hori errespetu falta da. Gizon bat emakume batengana zuzentzen denean forma berezi bat erabili behar da.

Dena dela, tokian tokiko, arau desberdinak daude. Etxe batzutan, hika tratamendua zakartzat jo dute eta horregatik etxe horietakoek ez dute hika egiten ikasi. Bitxikeria moduan senar-emazteen artean hika hitzegiteko dagoen ohitura eza aipa daiteke. Leku batzutan egiten da baina ez da normalena.

— Gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago egiten dute hika?

— Emakumeek euren artean egiten dute baina behar bada, gizon bat emakume batengana zuzentzen denean zuka erabiltzen du gehiago.

— Zer lortu nahi duzue antolatutako ikastaroekin?

— Erabili nahi duenak erabili dezala baina ondo. Hika ondo hitzegiten irakatsi nahi dugu.

— Zaila da hika ikastea?

— Ez. Akaso euskaldun berrientzat.

— Nola antolatu duzue ikastaroa?

— Alde praktikoa eta teorikoa izango du. Klaseak ere horrela banatu ditugu. Lehenengo klaseetan hikaren aurkezpena egingo dugu, non eta noiz erabili behar den azalduz. Bestalde, hikak baditu arau fonetiko batzuk eta horiek ere alde teorikoan sartuko genituzke. Hikaren formak ere ikasiko ditugu eta esaldiak eginez, zukako formatik hikara pasatuko ditugu automatismo hori sortu dadin. Ikasleek hika praktikatu dezaten sketch batzuk egin beharko dituzte ere. Eztabaida gai batzuk ere proposatuko ditugu ikasleek hika erabiliz hitzegin dezaten.

## LABURRAK

### “Emakumea 1996” argazki erakusketa

Arrasateko udalaren Emakume Sailak, emakumeek bizi duten esperientzia eta errealitatea oinarri bezala hartuta, emakumearen inguruko argazki erakusketa egingo du martxoaren 8tik 17ra arte. Argazki erakusketa emakumearen ohiko bizitzaren isla da izatea nahi du Emakumearen Sailak, horregatik emakumearen errealitatearekin lotuta dagoen edozein espresio adierazten duen argazkia jaso nahi dute.

Argazkiak martxoaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira Emakume Sailean, Arrasate Pasealekua, 1ean. Zuri beltzean nahiz koloretan egin daitezke eta argazkien formatoak gutxienez 18x40koa izan behar du, kartulina soportearekin aurkeztuz gero, 30x40koak. Partaide bakoitzak gutxienez 3 eta gehienez 5 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Argazki bakoitzak 1.000 ptako dirulaguntza jasoko du eta argazkiak entregatzerakoan emango zaio diru kopuru hori argazkilariari. Argazki asko egonez gero, aukeraketa bat egin ahal izango dute antolatzaileek.

### AEDren antzerki tailerra

AEDk antzerki tailerra jarriko du abian bihar, otsailak 24. Tailer hau larunbat goizero egingo da apirilaren bukaera arte. Arduraduna Jose Martin Urrutia antzezlea izango da eta “Nueva Zaragozako Herritarrak” antzezlan landuko du izena eman dutenekin. AEDn adierazi dutenez, momentuz 3 lagunek eman dute tailerlean parte hartzeko izena.



# Etorkizuneko Arrasateren hainbat ikuspegi maketa txikietan

Erakusketa interesgarria zabaldu zuten otsailaren 16an Harresi Aretoan. "Arkitekturek Arrasaten" izenburupean, Donostiako Arkitektureko Goi Eskola Teknikoko 10 ikasleren karrera amaierako proiektuak ikusgai daude erakuslekuan.

Arkitekturako 6. mailako ikasleek, Arrasate kokalekutzat hartuz, irudizko hotela, adinekoendako egoitza eta autobus geltoki baten maketak egin behar izan dituzte. Irakasleek 3 gune proposatu zieten maketa edo proiektua egiteko. Ondoren Arrasatera etorri ziren proposatu zitzaiena ikusi eta euren maketak errealitatera ahalik eta gehien egokitu zitezten. Argazkiak ere atera zituzten. Igor Bustinzak, maketa baten egileak zera dio: "ikasle askok hasi genuen proiektua edo maketa baina azkenean 40 ikaslek baino ez dugu amaitu. Amaitu dugunon lanen artean irakasleek onenak aukeratu dituzte Arrasaten erakusgai



3 hotel, 3 egoitza eta 4 autobus geltoki maketa daude ikusgai.

jartzeko".

Dena den, Harresi Aretoan ikusi daitezkeen proiektuak futuristegiak dira herriarentzat. Ikasle bakoitzak bere irudimen guztia erabili du eraikuntza diseinatzeko. Eduardo Artamendik, Arkitektura eskolako zuzendariak erakusketaren inaugurazioan esan zuenez, "koherentziaz egindako proiektuak dira eta ikasleek euren irudimena

proiektu bakoitzak bete behar dituen zerbitzuei ondo egokitu diote".

Xabier Zubizarretak bestalde, positiboki baloratu zuen erakusketa Arrasaten egon izana eta etorkizunean herrian egin daitezkeen proiektuen eredu izan daitekeela esan zuen.

Igor Bustinza ikasleak azaldu zuen: "nik ez dut behintzat inolako erreparorik izan nire maketari punta pun-

tako teknologia jartzera. Autobus geltoki moderno bat diseinatu dut. Zerrajera ondolan egongo litzateke eta lur azpian kafetegiak, jatetxeak eta dendak izango litzuzke. Autobus geltokiak 6 aparkaleku izango litzuzke eta ondolan bulego dorre bat egongo litzateke. Dorrea kolorez aldatzen diren kristalekin osatu dut, beira likidoa deritzan kristal motarekin. Bestalde, 200 autorendako aparkalekua ere jarri dut maketan. Proiektu futurista da eta oso garestia ere. Ez Arrasaten ezta estatuan ere ezin izango litzateke egin, nik proposatzen dudana teknologia ez dago hemen eta. Japon, Alemania edo EEBBetan posible litzateke".

Laister arkitektu titulua jasoko duten ikasle hauen proiektuak modernoegiak izan arren, zera zioen batek "nik niri gustatzen zaidana diseinatuko dut beti, ez nago prest arkitektura estilo konkretu bati jarraitzera eta ohiko estiloetan erortzera."



## URONDO

elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



# Besarka gaitezen Folleville!

EUGENE  
LABICHEren  
"vodevil" bat

**ORAIN**  
antzerki taldea



Aktoreak:

**IÑAKE IRASTORZA**

**NIKO LIZEAGA**

Zorion Egileor

Asier Hormaza

Fernando Mikelajauregi

Jokin Conde

Zuzendaria

**ENRIQUE DIAZ DE RADA**

**Amaia Antzokian**  
**Otsailaren 24ean, larunbata**  
**Gaueko 10.30etan**  
**Sarrera: 800 pta.**  
(GazteTxartelarekin 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



● *Bittor Aierdi*

# “Biolentziak ez du gatazka konponduko”

Arrasateko Elkari taile-rrak antolatuta, joan den astean hitzaldia eman zuen herrian Bittor Aierdik. Pozik eta inpresio onarekin joan zen Elkarriko Arrasatetik, bere esanetan hitzaldian jende asko egoteaz gain parte hartzea ere handia izan zen eta. “Jendearengan interes eta motibazio handia antzeman nuen eta jarrera hori gustatu egin zitzaidan”.

– Iaz Euskal Herriaren baketze prozesuan eman zen aurrerapausorik?

– Bai. Iaz elkarrizketaren aldeko jarrerak nabarmen egin zuten aurrera. Nahiz eta praktikan gauzatzea falta izan, aurrerapen teorikoak eman dira eta horiek beharrezkoak dira praktika abian jartzeko.

– Zer iruditzen zaizue ETA-ren aurka astelehenean Madrilen egin zen manifestazioa?

– Ekintza biolento baten ondoren izaten diren erreakzioak eta sakoneko planteamenduak bereiztea komeni da. Alde bateko zein besteko ekintza biolentoren bat gertatzen denean, beroan egingadako bapateko erreakzioak ugariak izaten dira, baina bakea elkarrizketan oinarritzea beharrezkoa da. Gaur egun ez da nahikoa ekintza


bat salatzea, eta Madrilen bildu zirenei bakea eraikitzekeo jarrera falta zitzaien.

– Zelan ikusten duzue PPK gidaritza hartzearen aukera?

– PPK irabazten badu ez gara hutsetik hasi beharko, gizartean aurreratu dena ez da atzean geratuko eta. Hala ere kezkarria da PPK gidaritza hartzea. Nahiz eta guztiek egin duten moduan PPK ere ETArekin negoziatuko duen, hasieran elkarrizketaren aurkako jarrerari tinko eutsiko dio. Indarraren bidez arazari irtenbidea eman diezaioketela pentsatuko dute, baina ondoren, neurri polizialekin bakarrik arazoari ezin zaiola irtenbidea eman eta harremanetan hasiko dira. Elkarrizketaren aldeko jarrera hori heldu bitartean denok galtzaile aterako gara.

– ETA eta gobernuaren artean postari lana egin zutenela aitortu duzue. Zein oztopo aurkitu zenuten?

– Batez ere Asunción ministroak jarri zituen oztopoak. Corcuera kargua utzi eta ministeritzara heldu berria zen Asunción, eta bere indarra erakutsi nahi izan zuen. Hori horrela izan arren, uste dugu ezker abertzaleari ere flexibilitatea falta izan zitzaioala.



– ETA eta Elkarriren arteko harremanak onak ez direla pentsa daiteke.

– Polemikak eta kritikak desmitifikatu behar dira. Polemika ondo dago zerbait eraikitzekeo balio duenean. Normala da ETAK Elkari kritikatzeko eta baita alderantziz ere. Eskatzen dugun gauza bakarra kritikak politikoak izatea da. ETARI kritika politikoa egin genion, azken ekintzak salatu eta autokritika egin zezatela eskatzeko. ETAK ez zigun maila berean erantzun.

Hemen hausnarketa bat dago: iaz ETAK egin zituen ekintzek zerbait onik ekarri dute bakearen, justiziaren eta askatasunaren alde? Gure ustez ez. Vallecasen eta Valentzian egindako ekintzek ez dute ezer onik ekarri. Gaur egun biolentziak eta indarrak

ez dute irtenbide zuzen eta demokratiko bat lortzen laguntzen. ETAK erakutsi du indarra duela eta baita estatuak ere. Biolentzia ez da bidea eta ez da arazoa konpontzeko gai izango. Bide hori alde batera utzi behar da eta negoziaketa politikora jo.

– Herritarrek zer egin dezakete bakearen alde?

– Ohituta gaude goi mailako politikan jarduten, baina etxetik hasi behar da elkarrizketa praktikatzeko. Herrian ere, “zurekin ados ez daudenekin” elkarrizketak hastera garrantzitsua da. Bake bidean herri bateko edozein esperientziak asko lagundu dezake. Aurten elkarrizketan oinarritutako foro pluralak antolatu nahi ditugu herrietan, gai batzuen inguruan eztabaidatu eta akordioak lortzeko. Bestalde, nazioartean bitartekaritza lortzeko ahalginak egingo ditugu, eta azkenik, orain arte lortutako akordioak sakondu eta zabalitzen ahalginduko gara.

● **“Etxetik hasi behar da elkarrizketa praktikatzeko. Herrian ere “zurekin ados ez daudenekin” elkarrizketak hastera garrantzitsua da”**





*U*

rte asko dira Espānako Txirrundulari Itzulia ez dela Euskal Herritik pasatzen. Orain hogeitamar urte inguru, zehazteko modurik ez dago eta, Sollube igo behar izan zuten txirrundulariek eta hura aprobetxatuz Bermeora joan zen Arrasateko talde bat. Dena dela txirrundulariena aitzaki bat besterik ez zen, gerra-denboran egindako lagunak bisitatzera joateko aukera

on bat. Betik euskaldunen alde egoten zirela aipatzen dute protagonistek, eta Sollubeko gaina lehenengo nork harrapatu zuen gogoratzen ez badute ere, orduan Loroño ibiltzen zela ondo diote.

Argazkian lau arrasatear agertzen dira, gainontzekoak Bermeoko lagunak dira. Ezkerrean zutik dagoen txapeldun gizon hori **Felix Gardoki** da. Ilada berean,

hirugarrena, **Fortunato Zeziaga**, eta zutik daudenen artean, eskumako txapelduna **Miguel Arrieta**. Makurtuta, berriz, ezkerretik hasita bigarrena **Felix Garai**.

Arrasatearrak goizean goiz irten ziren etxetik taxisa hartuta, Bermeora iritsi, lagunekin elkartu, bapo bazkaldu eta txirrundulariak ikusi ondoren gauerako berriz ere herrian zeuden.

**LAKET**

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 11 72

**GORKA**

ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Z E R N A H I A G O ?

**Mirari Garitaonaindia**  
**“Multi-Opticas” dendakoa**



- Betaurrekorik erabiltzen duzu? Ez.
- Arrasaten betaurrekodun asko dago? Bai.
- Non egiten dira betaurrekoen kristalak? Madrilen eta Alemanian.
- Aurten elurretarako betaurreko asko saldu duzue? Bai.
- Begietako ze gaitz da ugariena? Hipermetropia.
- Baduzue kolorezko lentilarik? Bai.
- Ze koloretakoak? Berdeak, urdinak, bioletak, grisak eta ezti kolorekoak.
- Zenbat balio dute? Asterokoek 3.900 pta. Besteak garestiagoak dira.
- Elurrak ze oroitzen dakartzkizu? Gabonak.
- Axola dizu elurra egitea? Ez, gustatzen zait.
- Pelikula bat? “El color Púrpura”.
- Zein aktorekin hartuko zenuke kopatxo bat? Richard Gere-kin.
- Irakurri duzun azken liburua? Agatha Christie-ren bat.
- Zein kolonia erabiltzen duzu? Ez dut erabiltzen.
- Musika talde bat? Victor Manuel eta Ana Belen.
- Txakur bati ze izen jarriko zenioke? Azkar.
- Zenbatean behin joaten zara Maxira? Larunbatero.
- Telebistako aurkezle gorrotatuena? Pepe Navarro, oso morbosoa da.
- Neguan kirolak egiten duzu? Aerobika egiten dut urte osoan zehar.
- Coca Cola ala Pepsia? Coca Cola.
- Kafe hutsa ala ebakia? Ebakia.
- Opari bat egin edo jaso? Jaso, jakina.
- Sagar ala gazta tarta? Gazta tarta.

LABURRAK

**Gazte Bulegoko**  
**1995eko datuak**

Guztira 5.737 kontsulta egin ziren iaz Gazte Bulegoan. Kontsuluten %34,7a hezkuntzari buruzkoak izan ziren eta %30,5a aisialdiari zegokionak. Gainontzeko gaiak, kopuruaren ordenean jarrita, karnetak, kultur ekintzak, objezioa, lanpostuak, gazte eta kultur elkarteak eta bibliografia. Objezioari dagokionez, udako bigarren zatian gai honi buruzko kontsultek gora egin zuten, 400 inguru.

Urtean zehar erabiltzaile gehienak neskak izan ziren, %55a. Bigarren seihilabeteko datuei begiratuz berriz, mutilen portzentaia, lehen aldiz, handiagoa izan zen, %51a hain zuzen.

Erabiltzaileen talde handiena erdialdeko gazteak dira, %31a inguru, gero San Andresekoak, hirugarrenean Deba Garaiko herrietakoak %17,7ko portzentaiaz. Aurreko urteekin alderatuta, talde honen igoera nabarmena izan da. Musakola eta Uribarri parekatuta daude. Azkenurreko taldea Santamainako gazteek osatzen dute eta azkena Euskal Komunitatekoak.



**Parques**  
**y Jardines**

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# Rocka eta heavya Nor Nori Rocken

**H**amabostaldi- bezala, datorren asteazkenean Nor Nori Rock saio berri bat aurkeztuko dute Kaitin Allendek eta Lierni Uribarrenek. Malaña, La Polla Records, EH Sukarra eta Thin Lizzy taldeen kanta desberdinak entzungai izango dira. Horrez gain Erandioko Daisy Cutters taldeari egindako elkarrizketa eta bere kanta batzuk ere ikasi eta entzun ahal izango dira asteazkenean 9.30etan Nor Nori Rocken.



## 23 Ostirala

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
9.30etan  
Astebete

## 26 Astelehena

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport

## 27 Asteartea

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Barrelekaixoka

## 28 Asteazkena

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Nor Nori Rock

## 29 Osteguna

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
"Elkartean" saioa, Tomas Axpek eta Karmele Zuazubiskarrek aurkeztuta.  
Elkartea: Herri-Gain

## 1 Ostirala

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete

KOMIKIA



Zaguzar.

## Etxe-Xundi

### 1. PLATERA

*Bi plater aukeran*

Etxeako gozoteria

### 2. PLATERA

*Haragia edo arraina*

Etxeako ardo gorria eta beltza

Kafoa

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)





**AUTOBUSAK**

Arratsaldeko 4etan

Garibai geltokian

**OTSAILAK**

**24**

larunbata

**IZENEMATEA**

Irati tabernan

**DEN-DENOK**  
**ESTADIORA**

*independentzia lortu arte JOTAKE*

**DONOSTIAN**

Anoetako

Estadioan

arratsaldeko

5,30etan

*Bozkatu*



**HERRI BATASUNA**



**Etxebizitzak**

- **Mutil bat gela baten bila dabil Arrasaten.** Tfnoa: 71 42 00, 230 luzapena. Pablo.
- **Pisua alokatzen da Arrasaten.** Tfnoa: (94) 682 04 78.
- **Pisua salgai San Andresen.** Tfnoa: 79 77 17.
- **70m<sup>2</sup>ko lonja alokatzen da.** Ur eta indarraz. Tfnoa: 79 76 95.
- **Makatenan etxebizitza salgai.** Tfnoa: 76 02 63.
- **Garaje plaza salgai Aldaigainen.** Tfnoa: 79 77 81.
- **Lokala alokatu nahi dugu** prezio merkean. Tfnoa: 77 14 18 edo 79 15 34. Igor.
- **Garajea alokatzen da** Jose Luis Iñarra kalean. Tfnoa: 79 36 79.
- **Lizarran 98 m<sup>2</sup>ko pisua salgai.** Gasturik gabekoa. Tfnoa: 79 11 02.
- **Jose Luis Iñarra kalean garaje plaza** alokatzen dugu. Tfnoa: 79 36 79.

- **Andra gereontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Neska gertu arratsaldez umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Irlandatik etorri berria** ingelesezko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 21 56.
- **Neska prest umeak zaindu** edo etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Bi neska gertu larunbatetan** etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 38 48 edo 77 01 39.
- **24 urteko neska euskalduna** etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuke. Esperientziaduna eta informeeekin. Tfnoa: 79 37 82. Pili.
- **Esperientziadun neska** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 71 44 27. Rakel.
- **Umeak zaindu edo** etxeko lanak egiteko neska gertu. Tfnoa: 79 74 92.
- **Neska gaztea gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 63 18.
- **Ileapaindegian diplomatu** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 63 18.
- **Neska bat garbiketak** (etxeak, bulegoak, lokal komertzialak, tabernak...) edo umeak zaintzeko prest Tfnoa: 79 85 40.

- **Neska prest pertsona nagusiak** zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 87 47.
- **Etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 77 07 97.
- **Emakume euskaldunak** eta esperientziadunak etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuke. Tfnoa: 79 56 81.
- **Emakumea prest** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 73 83.
- **Pertsona euskalduna** behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin gaueko 8etatik aurrera. Tfnoa: 77 13 30.

**Salerosketak**

- **Kristalezko apalak salgai.** Hiru pisukoak. 30.000 pta. Dendetarako balio dute. Tfnoa: 79 65 31.
- **Eskulanak egiteko larrua salgai.** Tfnoa: 79 65 31.
- **Motorrean ibiltzeko larruzko trajea salgai.** Oso rik edo bi zatitan saltzen dira. Prakak 32 tailakoa eta kazadora 40koa. Gaeuz. Tfnoa: 78 87 47.
- **Casio CT-700 teklatura salgai.** Tfnoa: 79 05 75.
- **Esplorarioko aukia salgai.** Tfnoa: 79 05 75.
- **Español arrazako zaldi sementala** daukagu. Interesatuek dei egin 79 23 36 edo 79 46 75 tfnora.
- **Fagor markako ontzigarbigailua salgai.** Berri berria dago. Tfnoa: 79 82 73.
- **90 eta 80 oheak salgai.** Laminazko egurrekin, eta logelarako armairua. Tfnoa: 79 24 51.
- **Josteko makina salgai.** Altzaria oparitzen da. 15.000 pta. Egoera onean. Tfnoa: 79 67 65.
- **Lapurren aurkako alarma salgai.** Denda edo tabernarako egokia. Tfnoa: 79 65 31.
- **la berria dagoen 50 litroko berogailu** elektriko salgai oso prezio onean. Tfnoa: 79 66 24. Eguerdian edo gauean.
- **Derby Copa motorra salgai.** (50 cc, 4 martxa). Gorria. Prezio ona. Tfnoa: 79 66 24. Eguerdian edo gauean.
- **Liberty ziklomotorea salgai.** la berria eta prezio onean. Tfnoa: 79 66 24. Eguerdian edo gauean.

**Dendetarik**

- **Etxeko eskriturak galdu zitzaizkidan** astear-tean, hilaren 13an. Udaletxea eta Maala bitartean. Aurkitu badituzu dei egin 79 92 70 tfnora.

**Lana**

- **Neska gertu umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 77 94.
- **Euskara eta gaztelaniako** itzultzailea behar dugu. Tfnoa: 77 04 98.
- **Bulegoak, etxebizitzak,** edo atarteak garbitzeko gertu. Tfnoa: 77 09 56.

**Aste Gazte**

**Lana**

• Donostiako Udalak dokumentazio, orientazio eta informazio goi-teknikari lanpostu bat deitu du (behin behinekoa). Soziologia, Hezkuntz Zientziak (Psikologia, Filosofia edo Pedagogia) zein Ekonomi eta Enpresa Zientzietan Lizentziatura eta 3. hizkuntz eskakizuna. Epea: otsailak 26.

• Elgoibarko Udalak Gizarte Lanean Diplomatu lanpostu bat deitu du. Titulazioa eta 3. hizkuntz eskakizuna. Epea: otsailak 29.

**Bekak**

• Gernikako bonkaketari buruzko dokumentazioaren inbentarioa egiteko beka bat. Baldintzak: lizentziatura, frantsesa eta ingelesa. Dirulaguntza: 1.500.000 pta. Epea: martxoak 14.

• Gutxitu fisikoei zuzendutako Lanbide Prestakuntzarako beka, Mapfre Fundazioak deituta. 17 eta 40 urtera artekoiei zuzenduta. Arlo eta espezialitate ezberdinak. Epea: martxoak 25.

• Parisen Museologia arloan

ikasketak burutzeko beka, lizentziatu gazteei zuzenduta. Epea: maiatzak 20.

**Lehiaketak**


• Balmasedako Istorio Motzen V. Lehiaketa. Gaztelaraz zein euskaraz. Gehienez, 8 orrialde. Epea: otsailak 29.

• Ignacio Aldecoa Ipuin Lehiaketa. Gai librea, euskaraz zein gaztelaraz. Sariak: 600.000 pta. ko sari bat modalitate bakoitzeko. Epea: martxoak 14.

• On Manuel Antonio Antia II. Literatur Lehiaketa. Elaberri laburrak. Gaia librea. Bi kategoria: 1) 14 urtez beheragoko herritarrek, 2) Helduen maila irekia. Epea: martxoak 29.

**"Inori kalterik egin gabe gure mutilak (intsumisioak) gartzelara bidaltzen dituzten epaileei dagokienez, historiak jarriko ditu bere lekuan".**

**MARKO BASTEGIETA, KORTZUBIKO ALKATEA, EGUNKARIAN**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**





# PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN

## AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

## SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak,  
medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan  
☎: 79 52 17 ARRASATE



## GOZOTEGIA

# MENDIZABAL

## OKINDEGIA

# Zabaldu berria!

Bertan  
egindako  
ogia eta  
gozoak!



Labetik  
atera  
berriak!



Sebero Altube, 2 Tfnoa: 79 89 60 ARRASATE



# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Sukaldeko altzari berriak jartzeko 6 arrazoi.

**FAGOR**

SUKALDE ALTZARIAK

— % 30ko **beherapena**

— **6** urteko garantia

— **Fagor** kalitatea: bakarra

— Modelo eta **kolore** aukera zabala

— Posibilitate guztiak

— Aukera **errepikaezina**

## SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g  
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

## BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52  
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42